

LABORAL KUTXA TALDEAREN LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN POLITIKA

LANEKO SEGURTASUNAREN ETA OSASUNAREN POLITIKA

LABORAL Kutxaren laneko segurtasuna eta osasuna gestionatzeko sistema diseinatzeko, erakundeko pertsona guztien profesionaltasuna eta erantzukizuna hartu ditugu aintzat, bai eta gauzatzen dugun jardueraren ondoriozko arriskuen ezagutza ere. Zuzendaritza Nagusia arduratuko da sistema betearazteaz eta betetzen dela zaintzeaz. Bestalde, langileen erantzukizuna izango da eginkizunak betetzerakoan sisteman ezarritako arauak eta prozedurak betetzea.

Izan ere, laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzea guztion lana da.

Zuzendaritzak konpromiso hauek ditu helburutzat zehaztuta eta ezarrita:

1. Lanari lotutako arriskuak identifikatu, ebaluatu eta eraginkortasunez kontrolatzea, langile guztien osasuna, segurtasuna eta ongizatea batetik eta lantokiaren jasangarritasuna bestetik babesteko.
2. Prebentzio-jarduera antolatzea eta jarduera horren eraginkortasunari eta efizientziari jarraipena egitea.
3. Bizitza-estilo osasungarriak, jarduera fisikoaren kultura eta pertsonen arteko harremanak sustatzen dituzten jarduerak garatzea.
4. Langile guztiei informazioa eta prestakuntza ematea, laneko arriskuen eta prebentziorako beharrezko neurrien inguruan.
5. Enpresaren jardueran, hierarkia-maila guztietan, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko irizpideak txertatzea, prebentzioaren kultura sustatzea (langileak prestatuz eta gaituz) eta langileei parte hartzen uztea lanpostuak gero eta seguruagoak eta erosoagoak izateko beharrezko hobekuntzak identifikatzeko lanetan.
6. Sistema ezartzeko behar diren bitartekoez (antolamenduaren, prestakuntzaren, pertsonen eta materialen alorrekoak) hornitzea.
7. Sistema lantzean behin berrikustea, kanpoko eta barruko ikuskaritzen bidez, sistema etengabe zaintzeko eta hobetzeko. Xede horrekin, helburu batzuk finkatuko ditugu, eta, politika hau bezalaxe, berrikusi egingo ditugu aldian behin.
8. Laneko segurtasunaren eta osasunaren inguruan aplikatzekoak diren lege-eskakizunak betetzea

Politikaren ezaugarriak

Bertsioa	Data	Organoa	Arrazoia	Aldaketak
1	2019ko ekaina	Zuzendaritza Nagusia	Hasierako onespena	
2	2023/09/28	K. Errektorea	ZKD zerbitzua	